


TRIKUHARRIAK ETA HARRESPILAK

JAIZKIBEL MENDIAN



ada Jaizkibel mendian historia aurreko aztarnategirik. Lehen aurkikuntzak Joxe Miel Barandiaran zenari zor dizkiogu. Euskal Herriko lehen gizonezkoen ikertzaile harek 1935. urtean aurkituak dira trikuharri (dolmen) eta harrespila (cromlech) hoiek. Beraien berri eman zuen 1946ko *Ikuska* aldizkarian ta geroago berriz *El hombre prehistórico en el País Vasco* (Buenos Aires, 1953) deritzan liburuaren 204. orrialdean.




Guziak ziren izkulin deritzan lepo aldean, Santa Barbara ermita zen inguru hartan, 1955. urtean Gipuzkoako Diputazioak handik hurbil Paradorea eraiki zuen.

Barandiaran zenak, holako aurkikuntzetarako zuen susmuagatik, bazekien nora joan aztarnategien bila. Seguruenik, zerbait esaten zioen eta, gure jakitun harek, toki ziurrari jo zion begia.

Ondotik, Jesus Elosegí zenak begiratu zituen inguru hoiek eta 1953an Euskal Herriko trikuharrien katalogatzea osatu zuenean, urte horretako *Pirineos* aldizkariaren, 295. orrialdean bi trikuharriren berriak zekartzan. Honako koordinadetan kokatuz: $1^{\circ} 50' 28''$, $43^{\circ} 20' 57''$. Baina, nik dakidanez, Eneolitos garaiko hobi hauetan oraindik azterketa zehatzik egin gabe jarraitzen da.

Harrespilen xehetasunak ordea, Luis Peña Basurtok hoietaz osatu zuen katalogatzean datoz, Aranzadi Zientzia Elkartearen VI. urteko (1954) *Munibe* aldizkariaren 177-179 orrialdeetan. Bi harrespilaren marrazkiak jasotzen dira bertan. Bataren biribiltasuna ia zazpi metrokoa da, baina bestearena ez da iristen metro batera.



Paradorea trikuharri gainean eraiki omen zuten eta, oroitzen naiz, hori zela eta Aranzadi Z.E.-koek zein haserre ziren. Gainera, badirudi, obragintzarako inguruko beste trikuharri eta harrespiletatik zenbait harriz baliatu zirela. Hori izaten bai da kulturaz zerbait hornitzen ez direnen sentiberatasunik eza.

1982. urtean *Munibe*-ren zenbaki berezi bat argitaratu zen: "Carta Arqueológica de Guipuzcoa" zeritzana eta, bere 210-212. orrialdeetan ikus daitekeenez, biren orde z bost harrespilaren arrastoak datoz toki berean. Burdinaroko harrespila hoiek, Aranzadi Zientzi Elkarteak bere sorreran buru izan zuen Joaquin Mendizabal Penafloida Kondearen oroitarritik hurbil daude.

JUAN SAN MARTIN

- Logopedia
- Ikasteko teknika ikastaroa
- Irakur - idazmena

Carmen Apecechea
Izaskun Larruskain

Sabino Arana Kalea 12
Tel.: 64 16 19